

V

Osoko bilkura

Baionan, Herriko Etxean

2024ko maiatzaren 31n

Urrutia, Andres, euskaltzainburua
González de Viñaspre, Roberto, diruzaina
Arejita, Adolfo, idazkaria
Urkia, Miriam, Iker sailburua
Aleman, Sagrario, Jagon sailburua
Alberdi, Andres
Arkotxa, Aurelia
Azkarate, Miren
Borda, Itxaro
Iñigo, Andres
Kaltzakorta, Jabier
Kintana, Xabier
Oihartzabal, Beñat
Oñederra, Miren Lourdes
Rekalde, Paskual
Salaberri, Patxi
Uribarren, Patxi
Videgain, Xarles
Zabaleta, Patxi

Osa, Erramun, idazkariordea eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaitetan.

Ezin etorria adierazi dutenak: Jean-Baptiste Coyos buruordea, Asun Garikano, Jose Irazu «B. Atxaga», Joseba Lakarra, Miren Agur Meabe, Alfontso Mujika, Castillo Suárez eta Mikel Zalbide.

Ahalak: Jean-Baptiste Coyosek ahala Andres Urrutiari; Asun Garikanok ahala Miriam Urkiari; Jose Irazu «B. Atxaga»k ahala Andres Urrutiari; Joseba Lakarrak ahala Aurelia Arkotxari; Miren Agur Meabek ahala Andres Urrutiari; Castillo Suárezek ahala Miren Lourdes Oñederrari; Mikel Zalbidek ahala Andres Urrutiari.

Batzarra Baionan egin da, Herriko Etxean, 2024ko maiatzaren 31n, ostiralean. Bilkuraren aurretik, Baionako Herriko Etxeko Xabier Parrilla Etchart 14. axuantak eta Herriko Etxean hizkuntza-politikaz arduratzen denak euskaltzainak agurtu eta harrera egin die. Andres Urrutia euskaltzainburuak Baionako Herriko Etxeari eskerrak eman dizkio harreragatik, bai eta osoko bilkura antolatzeke emandako erraztasunengatik ere.

Horren ondoren, A. Urrutiak euskaltzainak agurtu eta ahalak irakurri ditu. Quonuma badela egiaztatu ondoren, 2024ko maiatzeko osoko bilkurari hasiera eman zaio.

E. Osa idazkariordeak eguneko xehetasunak azaldu ditu.

1. Osoko bilkuraren (2024-04-26) bilera-agiria onestea, hala erabakiko balitz

Ohar idatzirik ez da jaso. Ahoz iruzkinik egin nahi den galdetuta, ez da egin. Ondorioz, 2024ko apirilaren 26ko osoko bilkuraren bilera-agiria onetsi da.

2. Ohorezko euskaltzainak. Proposa-menak aurkeztu eta erabaki

A. Urrutia, J.-B. Coyos, A. Arejita, R. González de Viñaspre, M. Urkia eta S. Aleman euskaltzain oso eta Zuzendaritzako kideek, Arautegiaren 3. eta 39. artikuluetan eta Barne-erregelen 6. artikuluan jasorikoa kontuan hartuz, lurraldean lurraldeko euskaltzain osoekin adostu ondoren, pertsona hauek proposatu dituzte **ohorezko euskaltzain** izateko.

Araba

Izena	Abizena	Aurkezpen laburra
Roman	Berriozabal Azpitarte	Bizkaitarra jaiotzez (Elorrio, 1957) eta gasteiztarra bizilekuz. Bilboko Irakasle Eskolan eta Deustuko Unibertsitatean ikasia eta graduatua. Lan-ibilbide osoa euskal irakaskuntzan eta, bereziki eta nagusiki, administrazio-lanetan emanikoa. Azken honetan, maisu, gidari eta bidelagun egoki bezain prestu askoren eskutik, euskaraz lan eginaz, euskarari eta euskararen erakunde eta agente sozialei sostengua eta bultzada ematen ibilitakoa. Hainbat argitalpenen egile.
Joakin	Gorrotxategi Txurruka	Eibar (1953). Filologia Klasikoan doktorea da (Salamancako Unibertsitatea) eta Euskal Herriko Unibertsitateko katedraduna, bai eta EHUren Antzinaroko Zientzien Institutuko burua ere. Euskaltzain urgazle izendatu zuen Akademiak 2006ko maiatzaren 26an. Zenbait idazlan: • <i>Onomástica indígena de Aquitania</i> (1984) • <i>Euskalgintza</i> XXI. mendeari buruz [arg.] (2008) • <i>Koldo Mitxelena Katedraren III. biltzarra</i> [arg. elkarlanean] (2013) • <i>Euskararen historia</i> [arg. elkarlanean] (2018)

Izena	Abizena	Aurkezpen laburra
Jose	Karrera Arizaga	Eibar (1938). Gasteizko Olabide ikastolaren sorreran parte aktiboa hartu zuen: herriz herri ibiltzen zen andereñoen bila ikastolan eskolak ematen ari ziren andereño horientzat tituluak lortzeaz ere arduratu zen. Garai horretan -60ko hamarkada-, Gasteizko umeen euskalduntzeaz arduratzeaz gain, kezka ere bazen helduen euskalduntzea eta horretarako sortu zuen Udaberria euskaltegia. Bertan, euskalduntzearen eta alfabetatzearen ardura izateaz gain, euskal kultura sustatzea ere bazuten helburu, dantzak eta txistua irakatsiz.
Iñaki	Martinez de Luna Perez de Arriba	Gasteiz (1950). Soziologian doktorea da (Deustuko Unibertsitatea). Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea eta <i>Hiznet</i> Hizkuntza Plangintza graduondoaren zuzendaria izandakoa. Soziolinguistika Klusterreko kidea. Euskaltzain urgazle izendatu zuen Akademiak 2015eko uztailaren 17an eta Sustapen Batzordeko kide da. 2023an, Manuel Lekuona sariaren irabazle izan zen, eta urte bat lehenago Anton Abadia saria eman zion Gipuzkoako Foru Aldundiak Martinez de Lunak sustatzen duen Garabide elkarteari. Zenbait idazlan: • <i>Handbook of Language and Ethnic Identity: the Success-Failure Continuum in Language and Ethnic Identity Efforts</i> [elkarlanean] (2011) • <i>Euskara</i> EAEn. <i>Gaitasuna, erabilera eta iritzia</i> (2013) • <i>Ikasleak hiztun. 2011ko Arriue proiektua</i> [elkarlanean] (2013)
Xabier	Rico Iturriotz	Gasteiz (1953). 26 urte zituela euskaldundu zen. 1981ean, UEUko bertsolaritza ikastaroan parte hartu zuen, Xabier Amurizaren gidaritzapean. Gasteizko Bertso Eskolaren sortzaileetakoa (1982) eta Arabako bertsolaritzan eragile: 10 urtez irakasle Gasteizko Bertso Eskolan, Koldo Mitxelena Institutuan bertso zaharren emaile eta aztertzaile (ikuspegi historikoan), epaile, bertso-biltzaile, gai-jartzaile... zereginetan. 2012ko Arabako Kuadrilla arteko Bertso Txapelketan kantari Kakiturri taldean eta 2013ko Arabako Bertsolari Txapelketan ere bai.

Bizkaia

Izena	Abizenak	Aurkezpen laburra
Jose Ramon	Etxebarria Bilbao	Gernika (1948). Industria Ingeniaritzan doktorea da (Euskal Herriko Unibertsitatea) eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle izan da. Euskaltzain urgazle izendatu zuen Akademiak 2006ko maiatzaren 26an eta hainbat batzordetan parte hartu du, hala nola Gramatika Batzordean eta <i>Eusker</i>a agerkarian. Lanetik erretiratu ostean, euskarazko Wikipedia osatzeko boluntario dihardu Hezkuntza Atarian «Kalitatezko 2000 artikuluko 12-16 urteko ikasleentzat» izeneko proiektua sendotzen. Zenbait idazlan: • <i>Erlatibitatearen teoria, Einsteinek berak azaldua [itzul.]</i> (2008) • <i>Zientzia eta teknika euskara arautzeko gomendioak</i> (2011) • <i>Komunikazioa euskaraz ingeniariaritzan</i> (2014)
Natxo	de Felipe Alonso	Bilbo (1949). Euskal abeslari, musikari eta kantugilea da, folk musikaren arlokoa. Ahotsaz aritzeaz gain, gitarra eta perkusioa jotzen ditu. Oskorri taldearen sortzailetarikoa izan zen 1971n, taldeko partaide izan zen 2015eko bukaera arrakastatsuraino, Anton Latxa eta Bixente Martinezekin batera.
Juanito	Gallastegi Duñabeitia	Durango (1933). Bilboko elizbarrutiko kidea. 1958an apaiztu zen eta Bizkaiko hainbat udalerritan lan egin du. Ekarpen esanguratsua egin die euskal letrei, bereziki, <i>Karmel</i> aldizkarian, eta gero <i>Anaitasuna</i>, <i>Zeruko Argia</i>, <i>Alkarren Barri</i>, <i>Eraz</i> eta <i>Anboto</i> aldizkarietan. Oiztik <i>Anbotora</i> asteroko irratsaioaren zuzendaria izan da Arrate Irratian. <i>Tontorretik begira</i> oroitzapen-bilduma argitaratu zuen (2011). Itzulitako lan oparoa, bizkaieraz eta euskara batuaz. 60ko hamarkadan, eliz testuak euskaratu zituen, euskal elizbarrutiek testu liturgikoak euskaratzeko sortutako itzultzaile taldearen barruan. EIZIEko ohorezko kide izendatu zuten 2002an, euskal itzulpengintzari egindako ekarpenengatik, eta horien lekuko dira <i>Itzulpen antologia III</i>. liburuan ageri diren testu erlijiosoen itzulpenak.

Izena	Abizenak	Aurkezpen laburra
Bernardo	Ibarra Ugalde	Iurreta (1952). Lehenengo ikasketak Bilbon egin zituen eta euskara ere Bilbon ikasi zuen Xabier Peñarekin. 1976an lehenengo aldiz joan zen Arratera; eta ordutik On Pedro Gorostidi Arrateko apaizarekin batera saiatu zen Arrate Irratiaren uhinak berriro aireratzen. Ahalegin hori, 1982ko abenduaren 30ean egia bihurtu zen. Ordutik, Arrate Irratian dihardu lanean.
Iñaki	Sarriugarte Irigoien	Bilbo (1953). Euskal Filologian lizentziaduna. Irakasle agregatua Basauriko Urbi Institutuan, Euskal Hizkuntza eta Literatura ikasgaiari. IRALEko irakaslea. Bertsolaritzan, epaimahaiko lehiaketa eta txapelketa askotan partaidea: eskolartekoan, Bizkaikoan, Euskal Herriko Txapelketa Nagusian eta abarretan. Hainbat artikulu, argitalpen eta liburu-edizioen egile. Kopla zahar eta haikuen maitalea.

Gipuzkoa

Izena	Abizenak	Aurkezpen laburra
Joxe Austin	Arrieta Ugartetxea	Donostia (1949). Filologia Erromanikoan lizentziaduna da (Deustuko Unibertsitatea). Idazlea eta itzultzailea da eta Donostia Kutzaren euskara kabineteko buru izatetik erretiroa hartuta dago. Euskaltzain urgazle izendatu zuen Akademiak 1996ko martxoaren 29an eta EBE Batzordean parte hartu du. UZEIrekin eta UEUrekin hainbat lan eginak ditu. Zenbait idazlan: • <i>Abuztuaren 15eko bazkalondoa</i> (1979) • <i>Bertso-paperekin printzatuak</i> (1985) • <i>Denbora galduaren bila I- Swann-enetik / Marcel Proust [itzul.]</i> (2010)

Izena	Abizenak	Aurkezpen laburra
Xabier	Garagorri Yarza	Andoain (1944). Filosofian lizentziaduna Parisko Unibertsitate Katolikoan (1972). Hezkuntza Zientzietan lizentziaduna eta masterra Parisko x - Nanterre Unibertsitatean (1974). Psikologian lizentziaduna Bartzelonako Unibertsitatean (1976). Filosofia eta Hezkuntza Zientzietako doktoreduna Pedagogia sailean Euskal Herriko Unibertsitatean (1995). Durangoko Kurutziaga Ikastolako zuzendaria (1977-80). Euskal Herriko Unibertsitatean irakaslea (1983-2010). Gipuzkoako Ikastolen Elkarteko Federazioan hezkuntza lanetan (1980-2013). Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean, Hezkuntza gaietan aholkularia Heziberri 2020 Plangintzan (2013-2016). Hainbat erakunderekin elkarlanean, hala nola Aljeriako Gobernuarekin UNESCOko aditu bezala (2010 eta 2011). Bere ibilbidean, euskal ikasmaterialgintzaren, euskal curriculumaren eta euskara ardatz duen eleaniztasunaren inguruan egindako ekarpenak nabarmendu daitezke. Helduak Adi! Elkarteko bazkide aktiboa, gaur egun.

Izena	Abizenak	Aurkezpen laburra
Mariasun	Landa Etxebeste	Erreteria (1949). Urteak eman ditu Literaturaren Didaktika irakasgaia irakasten EHUn, Donostian, Hezkuntza Fakultatean. Batez ere, haur eta gazte literaturako idazlanengatik ezaguna euskal literaturaren munduan. <i>Amets uhinak</i> , <i>Kaskarintzo</i> , <i>Elisabete lehoi domatzailea</i> , <i>Joxepi dendaria</i> , <i>Partxela</i> , <i>Txan fantasma</i> , <i>Errusika</i> , <i>Iholdi</i> eta abar. 36 titulu guztira. Hamaika hizkuntzataraz itzuli dituzte bere lanak (gaztelania, katalana, galiziera, bretoa, ingelesa, errusiera, okzitaniera, alemana eta abar). Hala berean, sari ugari jaso du idatzitako testuengatik: Lizardi Saria, Haur eta Gazte Literaturako Euskadi Saria, Espainiako Kultura Ministerioaren Haur eta Gazte Literaturako Sari Nazionala, International Board on Books for Young People delakoaren (IBBY) ohorezko zerrendan sartu zen <i>Iholdi</i> , eta Municheko Nazioarteko Haur eta Gazte Liburutegiaren Zozo zuria zerrendan, berriz, <i>Elefante txori-bihotza</i> . Hans Christian Andersen Sarirako hautagai izan zen eta beste hainbat aitortza ere jaso du: Dabilen Elea Saria, Jakiundeko kide, Donostiako Udalaren Hiritar Merezimenduzko Domina, Erreteria Hiriko Domina, Eusko Ikaskuntzaren Kultura, Arte eta Giza Zientzien Saria, Rosalía de Castro Saria, Manisesko Merkataritza Elkartearen aitortza, Idazle Galego Unibertsitatea, Emakunde Saria eta abar. Sormen lan horren ondoan ezin dira alde batera utzi unibertsitateko irakaslearen artikulua eta lanak, literaturaz eginiko gogoetak, horietako asko <i>Txikiaren handitasuna literaturan</i> liburuan jasotakoak. Eta ezin da alde batera utzi berdintasunaren aldeko lana eta militantzia ere.

Izena	Abizenak	Aurkezpen laburra
Amaia	Lasa Alegria	Getaria (1948). Irakaslea eta euskal idazlea da. Irakasle-ikasketak amaituta, ikastoletan lan egin zuen, irakasle eta idazle lana txandakatuz. 1970etik 1977ra bitartean, <i>Zeruko Argia</i> , <i>Egin</i> eta <i>Punto y Hora</i> aldizkarietan eman zituen argitara lan garrantzizkoenak. 1988an <i>Malintxearen gerizpean</i> (Pamiela) lana argitaratu zuen, narrazio laburren eta poemen konbinazioa. 2000. urtean, Euskal Herriko Unibertsitateak Amaia Lasaren lan poetikoa jasotzen duen <i>Geroaren aurpegia-El rostro del futuro</i> (1967-1997) eman zuen argitara, <i>Poema bilduma</i> (1971), <i>Hitz nahastuak</i> (1977), <i>Sustraiak</i> (1970-1977) eta <i>Ordu minduak</i> (1976-1978) poema-liburuak bilduz. Bertan biltzen diren poemetako batzuk argitaratu gabekoak ziren. 2001ean, antologia poetikoen bilduma. xx. mendeko Poesia Kaierak-ek (Susa) liburuki bat eskaini zion. 2010ean, Maiatz argitaletxeak <i>Itsasoko izakia</i> liburua argitaratu zuen.
Mikel	Lasa Alegria	(Donostia, 1938). Euskal idazlea, olerkigintzan eta itzulpengintzan nabarmendu dena. <i>Egan</i> , <i>Olerti</i> , <i>Yakin</i> , <i>Zeruko Argia</i> , <i>Zabalik</i> , <i>Literatur Gazeta</i> aldizkarietan eman ditu argitara lanik aipagarrienak. Lasaren olerkigintzak berrikuntza nabarmena ekarri zuen euskal literaturara, bere garaiko olerki sozialetik aparte, Europako joerei irekita, poesia intelektualagoa egiten baitzuen. Bere lan poetikoaren oinarria 1971n, arreba Amaia Lasarekin batera ateratako <i>Poema bilduma</i> izeneko liburua da, olerki zaharrenak 1963az gero idatziak badira ere. 1984an berriro argitaratu zen bilduma hori, orduko hartan Mikelenak bakarrik, eta 1993an <i>Memory Dump</i> izeneko obra eman du argitara, lehengo bilduma osoa, poema berriekin eta literaturari buruzko aburuekin batera. Bestalde, Alfonso Sastreren, Marcel Schwoben, Michel Tournierren eta Arthur Rimbauden obra batzuk itzuli ditu euskarara.

Ipar Euskal Herria

Izena	Abizenak	Aurkezpen laburra
Libe	Goñi Garate	Oteitza (Nafarroa) (1947). Lazkaon hazi eta irakasle eskolak egin ondoren, ikastolen garapenerako mugimenduan parte hartu zuen, Donostian eta Andoainen bereziki. Ihes egin behar izan zuen arrazoi politikoengatik eta 1968 aldean Argitxu Nobliaren etxean hasi zen euskarazko eskolak ematen. Handik gutxira sortu zen Seaska eta Iparraldeko zenbait ikastolatan andereño aritu zen, Arrangoitzen, Angelun eta Baionan nagusiki. Erretiroa hartu ondolan, <i>reiki</i> lasaigarri teknika-liburu bat plazaratu du <i>Har 3 minuta zuretako</i> izenarekin Zortziko etxean.
Philippe	Chareyre	Nîmes (1956). Historia Modernoko katedradun emeritua 2021eko urritik. Letretako eta Giza Zientzietako doktorea, Historia espezialitatean (1987), Paul Valéry Montpellier III Unibertsitatean. Historia Modernoko irakaslea UPPAn 1999tik. Batez ere, Frantziako hegoaldeko protestantismoaren historia jorratu du. Hainbat aldizkaritako erredakzio-batzordeko kidea da: <i>Revue d'histoire du protestantisme</i> , <i>Huarte de San Juan</i> , <i>Príncipe de Viana</i> , <i>Annales du Midi</i> <i>Revue de Pau et du Béarn</i> , <i>Lien des Chercheurs Cévenols</i> , <i>Euskera</i> .

Nafarroa

Izena	Abizenak	Aurkezpen laburra
Jose Mari	Espartza Zabalegi	Tafalla (1951). Nafarroako euskalduntasunaren inguruko ekimenetan kide eraginkorra eta, batik bat, Tafallari dagokionetan sortzaile, hala nola ikastola, gau-eskola, antzinako tradizioak, bertako historia... Altaffaylla Kultur Taldearen eta bestelako argitalpenen eta Fundazioaren sortzaile eta zuzendaria. Ikertzaile eta idazlea da, 30en bat libururen eta ehunka artikuluren egilea. Ikertzaile, idazle eta argitaratzailea.

Pello	Mariñelarena Martínez	Etxarri Aranatz (1956). Enpresa Zientzietan diplomaduna. Hainbat enpresatan finantza-zuzendari aritu ondotik, 1996. eta 2015. urteen bitartean Nafarroako Ikastolen Elkarteko zuzendaria izan da. Aldi berean, Nafarroako euskalgintzarekin partaidetza zuzena izan du, bai eta Administrazioarekiko harreman instituzionaletan ere. Euskal hezkuntzaren eragile Nafarroan.
Xabier	Olarra Lizaso	Tolosa (1953). Filologian lizentziaduna. Zenbait urtez Euskara eta Euskal Literaturako Batxilergoko katedraduna. 1988tik 2010era bitartean Nafarroako Gobernuako euskara itzultzaile. Igela argitaletxearen sortzaile eta zuzendari 30 urtez. Itzulpengintzan hainbat sari jaso ditu, hala nola Itzulpenaren Euskadi Saria hiru aldiz, eta Dabilen Elea Saria. Euskal idazle, itzultzaile eta editorea.
Mentxu	Peña Lizarazu	Irun (1953). Gaztetatik, hainbat gurasok eskatuta, haurren irakasle izana eta gero AEKn. Nafarroako Arantzan bizi denetik, 1994az geroztik, 2016ra arte Lesakako euskaltegi-barnetegian irakasle eta horren inguruko hainbat ekimenetan kide eraginkorra. Bortzirietako Euskara Mankomunitateko Batzordean nahiz Arantzako Batzordean partaide bultzatzailea. Euskararen irakasle eta sustatzailea.

Proposamena aurkeztu ondoren, norbaitek proposamen berriren bat egin nahi duen galdetuta, ez da egin. Hala berean, bozketa egin nahi den galdetuta, inork ez du halakorik eskatu. Ondorioz, aurkeztu den zerrenda aho batez onetsi da.

M.L. Oñederra euskaltzainak, aurrera begira, euskaltzainak izendatzeko orduan, kontuan izan beharreko gutxienekoak zehaztea komeni dela aipatu du. A. Urrutia euskaltzainburuak kode etiko baten antzekoa zehaztea komeni dela aipatu eta Zuzendaritzak lantzeko urratsak egingo dituela baieztatu du.

3. Arabako eta Nafarroako euskaltzain urgazleak. Proposamenak aurkeztu eta erabaki

A. Urrutia, J.-B. Coyos, A. Arejita, R. González de Viñaspre, M. Urkia eta S. Aleman euskaltzain oso eta Zuzendaritzako kideek, Arautegiaren 3. eta 38. artikuluetan eta Barne-erregelen 6. artikuluan jasorikoa kontuan hartuz, segidan ageri diren pertsona hauek proposatu dituzte **euskaltzain urgazle** izateko. Proposamena lurraldean lurraldeko euskaltzain osoekin adostu da, aldez aurretiko kontsultak eginez.

Araba

Izena	Abizenak	Aurkezpen laburra
Katixa	Agirre Miguélez	Gasteiz (1981). Euskal idazlea da; literaturaren, kazetaritzaren eta blogen arloetan dihardu. Haur-literaturan ere hainbat lan kaleratu ditu. Ikus-entzunezko komunikazioan doktorea da eta EHUn irakasle. Atzerriko hainbat unibertsitatetan ibili da ikertzaile, baina egun Bilbon bizi da. 2007an argitaratu zuen bere lehen liburua, <i>Sua falta zaigu</i> , ipuinek edo istorio laburrek osatutakoa. Zutabegilea izan da eta <i>Diario de Noticias de Álava</i> , <i>Deia</i> , <i>Aizu!</i> eta <i>Argia</i> argitalpenetan kolaboratzen du. Hainbat sari irabazi ditu: Ernestina de Champourcin poesia-saria (2003); Emakumeak Kontari ipuin-lehiaketa (2005); Igartza Saria (2007). Umeentzako hainbat liburu ere idatzi ditu: <i>Paularen seigarren atzamarra</i> , <i>Ez naiz sirena bat, eta zer?</i> eta <i>Patzikuren problemak</i> . Amaia Lapitz-en sailean gaurdaino hiru eleberri argitaratu ditu: <i>Atertu arte itxaron</i> (2015), <i>Amek ez dute</i> (2018) eta <i>Berriz zentauro</i> (2022).

Izena	Abizenak	Aurkezpen laburra
Miel A.	Elustondo Etxebarria	Azpeitia (1958). Buruagan (Araba) bizi da. Irakurzalea da, idazlea –kazetaria, elkarrizketatzailea, gidoilaria, itzultzailea, zuzentzailea...– eta argazkilaria. Bere lanak euskarazko hedabideetan argitaratuz hasi zen, eta horretan da gaur egun ere. Hamaika elkarrizketa ditu argitaratuak <i>Erlean</i>, <i>Argian</i>, <i>Berrian</i> eta <i>Administrazioa Euskaraz</i> aldizkarietan, eta haien bilduma bat ere publikatua du (<i>Zozoen elean</i>, <i>Utriusque Vasconiae</i>, 2012). AEBetako euskaldunak ardatz, <i>Western Basque Festival</i>, 1959, urte hartan gertatu zen (Susa, 2007) saiakera eta, gerora, <i>Basque Blvd</i> kronikak argitaratu zituen <i>Gara</i> egunkarian. <i>Mr. Basque</i> (Pamiela, 2011) William Douglass antropologoaren memoriak ere idatzi zituen... Irakaskuntzan, argitaletxe-munduan eta hainbat irrati-zein telebista-saiotan (<i>Sautrelaren</i> sustatzaile eta gidoilari izan zen) parte hartu du. Euskarara ekarri ditu Jim Thompson idazlearen hiru eleberri, eta, joan deneko aldian, Arabako euskararen historia sozialari loturik diren hiru lan: <i>Hego haizea dabil: Olabide ikastolaren historia bizia</i> (Olabide ikastola, 2014), <i>Abdon Gonzalez de Alaizaren alfabetoa</i> (AFA eta Arraia-Maeztuko Udala, 2020), eta <i>Izaskun Arrueren urratsen atzetik</i> (Gasteizko Udala eta AFA, 2018). Rikardo Arregi Kazetaritza Saria (2022), <i>Berria</i> egunkariko <i>Tonban</i> ehortzirik udako sailagatik. Bost urte daramatza Jon Mirande irakurtzen, eta hartaz idazten Berrian. Horrek, besteak beste, Josu Martinezen <i>Mirande, film bat egiteko zirriborrea</i> filmean (2023) gidoilari jardutera eraman du.

Izena	Abizenak	Aurkezpen laburra
Patxi	Zubizarreta Dorronsoro	Ordizia (1964) du jaioterri eta Gasteiz sormen-leku. Bertan sortutako lanetan erroak nabarmentzen dira, hala nola <i>Atxiki sekretua</i> obran eta <i>Urrezko giltzadisko</i> liburuan, edota <i>Hiru gutun Iruñetik</i> nobelan. Baina hegoak ere nabariak dira, batez ere migrazioak eta mundu arabiarra guregana hurbiltzeko, esate baterako <i>Usoa</i> eta <i>Korri, Kuru, korri!</i> ipuinetan, edota <i>Eztia eta oxpina</i> nobelan. Erroak eta hegoak berak egindako Exupèryren <i>Printze txikia</i> edo <i>Mahfuzen Mirarien kalezuloa</i> itzulpenetan ere ageri dira. Lan ugari saritu (hainbat bider, Euskadi Literatura Saria; Espainiako 2023ko Literatura Sari Nazionala, haur literaturaren eremuan eta abar) eta itzuli dizkiote eta, generoak eta diziplinak bateratuz, hainbat ikuskizun eta performance eskaintzen jarraitzen du bai gurean bai atzerrian.

Nafarroa

Izena	Abizenak	Aurkezpen laburra
Patri	Arburua Etxeberria	Igantzi (1972). Euskal Filologian lizentziaduna eta Hizkuntza Plangintzan graduondoko diploma. Euskara teknikaria Bortzirietako Euskara Mankomunitatean 1994az geroztik. Hizkuntza plangintzan zenbait lanen egilea. Euskara-teknikaria.
Miren	Basurto Luzuriaga	Segura (1968). Euskal Filologian lizentziaduna eta Espainiako Literaturetako masterduna. Euskara irakaslea eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuko Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroko (EIBZ) material sortzaile eta prestatzailea, bai eta kontsulta zerbitzuko lanen eta euskara hobetzeko ikastaroen kudeatzailea ere. Ikasmaterialen prestatzaile eta hizkuntza-zuzentzailea.

Izena	Abizenak	Aurkezpen laburra
Fermin	Erbiti Zabaltza	Iruñea (1964). Kazetaritza lizentziaduna, zenbait urtez lan horretan aritua <i>Navarra Hoy</i> egunkarian eta RTVEko Nafarroako zentroan. 1993az geroztik, Nafarroako Kontuen Ganberako komunikazio-arduraduna eta itzultzailea da. Hainbat liburu argitaratzeaz gain, zenbait hedabidetako kolaboratzaile ere bada. Komunikazio-arduraduna eta idazlea.
Inma	Errea Cleix	Iruñea (1960). Informazio Zientzietan lizentziaduna. Kazetaritza lanean aritua Euskal Telebistan, eta 1997az geroztik Iruñeko Udalean itzultzaile urte luzez eta Euskara Zerbitzuko arduradun azkenaldian. Zenbait lan idatzi ditu. Itzultzaile eta idazlea.
Fernando	Rey Escalera	Iruñea (1961). Medikuntza eta Kirurgia Orokorrean lizentziaduna. Euskara-itzultzaile Nafarroako Gobernuan 1988tik 2015era, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan (NUP) Euskararako Atal Teknikoko buru 2018az geroztik. EIZIEko lehendakari gaur egun. 40ren bat literatura-liburu itzuli ditu, bai eta itzulpengintzako zenbait sari lortu ere, hala nola Itzulpenaren Euskadi Saria behin eta Vitoria-Gasteiz Saria bitan. Literatura testuen zuzentzaile (gehienbat Igela eta Pamiela argitaletxeentzat). Itzultzaile eta testu zuzentzailea.
Ekaitz	Santazilia Salvador	Iruñea (1987). Euskal Filologian lizentziaduna (ezohiko sariduna) eta Hizkuntzalaritza doktorea. Nafarroako Unibertsitate Publikoko (NUP) irakaslea Euskal Filologia alorrean. <i>Fontes Linguae Vasconum</i> aldizkariaren zuzendaria. Ikertzailea euskararen historian, Nafarroakoan batik bat, eta beste zenbait ikerketa-lan eta -argitalpenen kide eta kolaboratzailea. Unibertsitateko irakaslea eta ikertzailea.

Proposamena aurkeztu ondoren, norbaitek proposamen berriren bat egin nahi duen galdetuta, ez da egin. Hala berean, bozketa egin nahi den galdetuta, inork ez du halakorik adierazi. Ondorioz, aurkeztu den zerrenda aho batez onetsi da.

4. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharrak (LII). Jasotako iruzkinak aztertu eta erabaki

M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak hiru gai azaldu ditu: Batetik, Exonomastika Batzordeak eguneratu berri dituen 32. eta 36. arauetako herritarrak gehitu dira hiztegian. Frantziako herritarren zerrendari oharrak egin zizkion A. Iñigok, baina aurreko osoko bilkurara ez ziren ekarri, eta gaur aurkeztu eta erabakitzea proposatu da, hiztegiaren ekaineko eguneratzean horiek ere jaso ahal izateko. LANDESTAR herritar izenaren formak eztabaida sortu du, *Landetako* ala *Landesetako* behar duen. Azkenean, arauak *landestar* soilik jaso duenez (eta ez *landatar*), nahiz eta 35. oin-oharrean dioen «*Landak* edo *Landes* izena dela eta, deklinabideak ere bietara egiten duela: *Landetara*, *Landetan*, *Landetako*...; *Landesetara*, *Landesetan*, *Landesetako*...» dioen, eta Iparraldean *landesak* erabiltzen denez, '*Landesetako*' jasotzea erabaki da.

Bestelako oharrak ez denez izan, zerrenda bere horretan onetsi da.

Bestetik, apirileko bilkuran onartutako LI multzoan FORU(-)LEGE azpisarrerako definizioa zuzendu beharra zegoela aipatu zuen A. Urrutia euskaltzainburuak, eta berak proposatutako definizioa eta adiera berria aztertu dira bileran, bai eta falta zen *foru(-)arau* ere. Bileran oharrak gabe onartu dira proposamenak. Gaiarekin amaitzeko, apirileko bilkuran aurkeztutako zerrendari A. Garikanok, A. Urrutiak, A. Alberdik eta M.A. Meabek egindako oharrak aurkeztu dira, bai eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak ere. Bileran oharrak ez da egin; beraz, zerrenda osoa onartuta geratu da.

5. Euskaltzaindiaren Hiztegia. Adierak eta Adibideak. Batzorde Ahaldunduaren oharrak (LIII). Aurkeztu

Zerrenda berria aurkeztu du M. Urkia Batzorde Ahaldunduko idazkariak, A. Iñigok eta M. Azkaratek egindako oharrak eta egitasmoko kideek emandako erantzun arrazoituak biltzen dituen. Aurkezpenaren ondoren, oharrak egiteko epea zabaldu da, ekainaren 17 (astelehena) artekoa.

6. Euskaltzaindiaren 2023. urteko kontuak eta 2024ko aurrekontuak. Azalpenak eman.

R. González de Viñaspre diruzainak gogorarazi duenez, duela dozena bat urte baino gehiagotik Euskaltzaindiaren urteko kontuen ikuskaritza egiten da eta

emaitza herri-erakundeei aurkezten zaie. Prozesu hori, urteko lehen lauhilekoan burutzen denez, orain da mementoa 2023. urteko kontuen emaitza eta 2024ko aurrekontuen nondik norakoak azaltzeko, osoko bilkuran. J. Zabaleta kudeatzaileari hitza eman aurretik, diruzainak azpimarratu du, norbaitek azalpen xeheago edo argibide zehatzagoren bat nahi izanez gero, J. Zabaletarekin hitz egitea besterik ez daukala.

J. Zabaleta kudeatzaileak azaldu duenez, 2023. urtean, sarrerak, guztira, 2.941.966,59 eurokoak izan dira, aurreikusitakoak baino 61.878,71 € gutxiago (-% 2,06). Gastuak, aldiz, guztira, 2.943.101,66 eurokoak izan dira, aurreikusitakoak baino 60.743,64 € gutxiago (-% 2,02). Aldea, nagusiki, Mintzola egitasmoan gertatu da, begiz jotako sarrera guztiak (60.000 €) ez direlako gertatu eta, ondorioz, gastuak ere maila berean doitu behar izan direlako.

Euskaltzaindiak 2023an izandako sarrera guztien % 84 etorri da Akademiaren eta EAEko herri-erakundeen arteko esparru-hitzarmenetik (1.940.220 €), Nafarroako Gobernutik (200.000 €) eta Espainiako Gobernutik (333.000 €). Horiek horrela, 2023. urteko kontuen emaitza orekatua izan dela esan daiteke (-1.135,07 €).

2024. urteari doakionez, 2.956.164,10 € izatea aurreikusi da, hots, 2023an izandako sarreraren oso antzekoa (+% 0,48). Esparru-hitzarmeneko administrazioen dirulaguntzak berdinak izango dira, baita Nafarroako eta Espainiako Gobernuarenak ere (aurrekontuaren % 83,7). Gastuen aurrekontua 2.956.164,10 eurokoa izango da, 2023an izandako gastuen oso antzekoa (+% 0,44). Hala berean, batzordeen, lantaldeen, egitasmoen, zerbitzuen zein bestelakoen sarrerak zein irteerak ere aletu ditu.

7. Euskararen Gogoetagunea. Aurkeztu

Hitza hartu du S. Aleman Jagon sailburuak. Azaldu duenez, egitasmo hau 2023. urtean jarri zen abian, Sustapen Batzordearen barnean. Egitasmo horren arduraduna Jon Sarasua euskaltzain urgazlea eta Sustapen Batzordeko kidea da. Ondoren, hitza hartu du egitasmoaren arduradunak.

Egitasmoaren helburua datozen hamarraldietarako euskararen etorkizun-ikuspegia eta estrategia-ildo nagusiei buruzko gogoeta egitea da, lanketa horren emaitza euskal gizarteko eragileei eskaintzeko. Horretarako, hainbat arlotako jakitunei ponentziak eskatu, kontraste-talde askotariko baten bidez horiek hobetu eta hainbat eragileren iritziekin alderatu nahi dira. Lau urteko epea

hartu du Gogoetaguneak lan hori egiteko. Egitasmoaren abiapuntua, helburuak eta metodologia azaldu ondoren, prozesuaren erdiguneko ponentziaren ardatz nagusiak azaldu ditu Sarasua jaunak eta *Euskararen etorkizun-ikuspegia* izeneko ponentzian jasotzen den edukiaren mamia agertu du laburki infografiaren proiektzioak lagunduta.

8. Esku artekoak

8.1 Beñat Oihartzabal euskaltzaina emeritu izaerara igarotzearen ondorioz, hutsartea betetzeko hautagaia. Arautegiaren 33. eta 34. artikulua eta Barne-erregelen 4. artikulua betez, hutsartea betetzeko, J.L. Davant, J.B. Coyos eta I. Borda euskaltzain osoek Jon Casenave euskaltzain urgazlea aurkeztu dute. Gaiaren merezimenduak xeheki aipatu dira aurkezturiko idatzian. Horiek horrela, Arautegiak eta Barne-erregelek zehaztutako epearen barruan, ez da bestelako hautagairik aurkeztu. Ondorioz, hutsartea betetzeko bozketa Gasteizen, Goiuri jauregian, egingo da ekainaren 29an izango den osoko bilkuran.

8.2 Hurrengo bilkurak

8.2.1. *Euskara Ibiltaria erakusketa ekainaren 11n inauguratuko da Mungian, 18:00etan.*

8.2.2 «Euskararen Biziberritzea Ipar Euskal Herrian» jardunaldia egingo da Baionan, Herriko Etxean, ekainaren 21ean. S. Aleman Sustapen Batzordeko buruak eman du egitarauaren berri. Logistika kontuak-eta (lekua zein bazkaria) lotzeko, interesa dutenek Idazkaritzari jakinaraztea komeni da.

8.2.3 Hurrengo osoko bilkura: Gasteizen, ekainaren 29an, larunbatean, egingo da, Goiuri jauregian, 10:00etan.

8.2.4 Asun Garikano euskaltzainaren Sarrera hitzaldia dela-eta, ageriko bilkura egingo da Gasteizen, ekainaren 29an, larunbatean, Goiuri jauregian, 12:00etan.

9. Azken ordukoak

M. Azkarate euskaltzainak gogorarazi duenez, joan den urtean, urtarilaren 27ko osoko bilkuran, taxi-zerbitzua erabiltzeari eta bazkariei buruzko jarraibideak aurkeztu ziren. Irizpideak onetsi ostean, bazkarien kontuak batzordeen eta

lantaldeen ohiko funtzionamenduan arazoak sortzen dituela-eta, irizpideak berrikusiak izan daitezen eskatu du. A. Urrutia euskaltzainburuak azaldu duenez, Zuzendaritza prest dago berrikusi beharrekoak berrikusteko, betiere proposamen bat eskuartean eta erabakia batzorde eta lantalde guztientzat izango direla kontuan izanik.

Eta bestelako aztergairik ez dela, osoko bilkura bukatutzat eman da, 13:30ean.

Andres Urrutia
Euskaltzainburua

Adolfo Arejita
Idazkaria